

# Prensa oharra

## Nota de prensa



## Lagundutako bainu-zerbitzua martxan dago Kontxan, irisgarritasun-baldintzak hobetuta

*Lagundutako bainu-zerbitzua, sorospena Santa Klaran, goi-denboraldiko ordutegia, eguzkitakoak eta irisgarritasun hobekuntza berriak ekainaren 15etik aurrera jarriko dira martxan*

Gaur, ekainak 15, martxan jarriko da, Kontxako hondartzan, bainu lagundua hartzeko zerbitzua, eta irailaren 15era arte funtzionatuko du, 11:00etatik 19:30era. Zerbitzuak hiru monitore espezializatu eta material egokitua izango ditu, hala nola lur orotako aulkiak eta makulu anfibioak, irisgarritasun unibertsala eta mugikortasun urriko pertsonak behar duten laguntza bermatzeko.

Zerbitzuak erabiltzaileen inklusioa eta autonomia indartzeko balio duten hobekuntzak gehitu ditu aurrean. Horien artean, aldagela kolektiboaren irisgarritasuna hobetzea, dutxatzeko eserlekuak eta bermatzeko barrak jarri, armairu irisgarriak erreserbatuz eta instalazioetako hainbat elementu egokitzuz, erosotasun eta segurtasun handiagoaz erabili ahal izateko.

Aldaketa horiek lehenengo hobekuntza-faseari dagozkio, eta asmoa da egokitzapen berri hauek pixkanaka hiriko gainerako aldageletara zabaltzea, hautemandako beharren arabera.

Kontxako aldagela kolektiboetan dagoen dutxa egokitua doan erabiltzea da zerbitzuak eskaintzen dituen berrikuntzetako bat. Sartzeko, bainu lagunduaren tiketa aurkeztu beharko da. Tiket horrekin, gainera, aldagela kolektiboak erabili ahal izango dira.

Bestalde, Salbamendu eta Sorospen Zerbitzuak quad berri bat izango du uda honetan, hondartzen inguruan dabilzan erabiltzaileei erantzun egokia eta behar bezalako arreta emateko gaitasuna hobetuz.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi Iñigo Garcíak nabarmendu duenez, "bainu lagundua martxan jartzeak indartu egiten du hondartza irisgarriagoak eta inklusiboagoak izateko hartu dugun konpromisoa; gainera, hobekuntzak egin ditugu, bai azpiegituretan bai giza baliabideetan eta baliabide teknikoetan".

Garcíak gaineratu duenez, "zerbitzu horrek bermatzen du erabiltzaileek bainua hartu dezaketela baldintza egoki eta seguruetan, eta aurrerapauso bat da mugikortasun murriztua duten pertsonak ematen zaien arreta pertsonalizatuan, haien beharretara gero eta hobeto egokitzen den ingurune batean".

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **Hondartza-denboraldiak gaurtik aurrera aktibatu ditu zerbitzu guztiak**

Bainu lagundua abian jartzearekin batera, hondartza-sasoiko funtsezko beste zerbitzu batzuk ere hasi ziren. Gaurtik, ekainaren 15etik, Santa Klara uharteko sorospen-zerbitzua abian jarriko da, eta irailaren 30era arte egongo da martxan. Hala, segurtasuna indartuko da udan gehien bisitatzen den gunetako batean.

Era berean, salbamendu eta sorospen zerbitzuaren goi denboraldiko ordutegia hasiko da hiriko lau hareatzetan. Ekainaren 15etik irailaren 15era bitartean, zerbitzua 10:00etatik 20:00etara egongo da martxan. Ondoren, irailaren 16tik 30era, ordutegia 10:30etik 19:30era izango da.

Eguzkitakoak alokatzeko zerbitzua ere gaur jarriko da martxan, eta Kontxako, Ondarretako eta Zurriolako hondartzetan egongo da eskuragarri. Denboraldi honetarako eskaintza honako hauek osatzen dute: 290 olana Kontxan, horietatik 8 pertsona ezinduentzat egokituta; 424 olana Ondarretan, 12 plaza egokituekin; 157 eguzkitako eta 82 karpa hareatza honetan bertan; eta 240 toldo Zurriolan, horietatik 8 pertsona ezinduentzat gordeta.

Bainu lagundua, Santa Klarako sorospen-zerbitzua, zaintzako goi-denboraldiko ordutegia eta eguzkitakoen zerbitzua abian jarrita, hondartzen sasoia bete-bete sartzeko da martxan, eta herritarrei eta hiria bisitatzen dutenei hareatzez segurtasunez, irisgarritasunez eta erosotasunez gozatzeko aurreikusita dauden zerbitzu guztiak eskaintzen zaizkie.

Iñigo García Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotziak adierazi duenez, “gaurtik aurrera, hondartzen denboraldiak errendimendu osoan funtzionatzen du, eta oinarritzko zerbitzu guztiak operatibo daude erabiltzaile guztientzako esperientzia segurua, irisgarria eta kalitatezkoa bermatzeko”. Garciak gaineratu duenez, “lanean jarraitzen dugu gure hondartzak gero eta espazio inklusiboagoak, jasangarriagoak eta erosoagoak izan daitezen, etengabeko hobekuntzak txertatuz bai irisgarritasunean, bai segurtasunean eta herritarren arretan”.